

# **BANDOA**

Herritar guztiei jakinarazten dizuet 2010eko urtarrilaren 14an egin zen Udalbatzarrean beste gai batzuren artean ondoko mozioa onestu zela:

## **EGUNKARIA LIBRE!**

- *Egunkaria*-ren aurkako prozesua salatzea: Espainiako Auzitegi Nazionalak eta Guardia Zibilak 2003ko otsailaren 20an euskarazko egunkaria itxita, adierazpen askatasuna eta informazio eskubidea urratzeagatik, euskararen aurkako eraso egiteagatik eta Euskal Herriaren kontrako operazio politikoa burutzeagatik.
- *Egunkaria*-ren aurkako epaiketa ez egiteko exijitzea Espainiako Auzitegi Nazionalari. Eta, egiten bada, euskarazko kazetaren kontrako epairik ez emateko, auzipetu guztiak baldintzarik gabe libre uzteko, eta *Egunkaria*-ri eta auzipetu denei kalteordainak ordaintzeko exijitzea.
- Elkartasuna eta babesa adieraztea auzian hasieratik inputatutako guztiei, eta haiek jasan behar izan dutena salatzea (atxiloketak, inkomunikazioak, tratu txarrak, torturak, kartzelatzeak, sakabanaketak...).
- Hurrengo asteetan *Egunkaria*-ren alde egiteko konpromisoa hartzea.
- Larrauldar guztiei dei egitea ekimenetan parte hartzeko eta inplikatzeko.

Larraulen, 2010ko Urtarillaren 15ean

ALKATEA  
Xabier Mujika Pagola

